



Itsasoaren Hamabostaldia

Laket portuetan 1,4 milioi libera inbertitzen da lan postu batentzat

M. ESTEBAN / D. LOHIZUNE

Donibane Lohizune eta Ziburuko Itsasoko Hamabostaldiaren kariatara, ostegun arratsean, CETEMek, Itsas Iker Zentruak, urari buruzko mintzaldi bat antolatu zuen, batez ere lakete portuez hitz egiteko.

Mintzaldia Rex gelan gertatu zen eta gai honen zehaztasunak entzuteko asmoz berrogeitamar bat lagun hurbildu ziren areto honetara.

Bernard-ek Cantacuitaine, Kantauri eta Akitaniako lakete portuetako elkartearen lehendakariak Frantziako portuetako egoera aztertu zuen.

Mintzaldian eskainitako datuen arabera, Frantziako kostaldeetan, portu edo xede direnak, 50 dira. Momentuan, lakete portuek 200.000 untzi onar ditzakete. Hala ere laketuntzien benetako kopurua askoz handiagoa dela azpimarratu zen hitzaldian, Frantzia 710.000 untzi orotara bait dira.

Jacques Bernarden esanetan, lakete portuen hedatzea beharrezkoa da. Gainera, bere ustez, «6 milioi laketuntzi erabiltzaile izan behar lirateke», erran nahi du Frantziako biztanlearen kasik %10 laketuntzietan ibil daite-

keela. Mintzaldian, lakete portuetako ekonomi egoeraz hitz egin zen.

Frantzia, udalak dira lakete portuetako egileak eta Didier Mundutegik, CETEMeko ordezkariak, azpimarratu zuenez «lakete portuetako azpiegitura eraikitze-ko diru asko behar da eta maiz portuen xedeak etxegintza proiektuekin lotuak dira». Erran daiteke untzitoki batentzat, inbertsioa dela 80.000 eta 140.000 liberen (1,44 eta 2,52 milioi pezeta) artekoa.

Jacques Bernard-ek adierazi zuenez, «10 tokiuntzietarik, lan postu bat ateratzen da. Beraz, lan postu batentzat 800.000 eta 1,4 milioi libera artean (14,4 eta 25,2 milioi pta)».

Untzien itsasorako ateraldiez, Didier Mundutegik azpimarratu zigun: «Frantzia guztiko lakete portuetako %10 untziek baizik ez dituzte ateraldiak egiten urtean zehar».

Lapurdi kostaldean bi lakete portu badira, bat Ziburun eta beste bat Angelun. Beste bien xedeak dira Angelun (Barran) eta Hendai. Bi azken lakete portuetan 1.300 untzitoki xedeetan dira eta inguruan etxegintzak proiektuan edo egiten ari dira.

ETBk jauzi kualitatiboa egin nahi du udazkenerako programazioan

Katea bien helburu eta mezuek mami ezberdinak izaten segituko dute

Atzo aurkeztua izan zen Donostiako Miramar jauregian jadanik bertan den udazkenerako Euskal Telebistaren programazio berria. «Iraultza» edo iraultzaile moduan agertu den programazio berriak, Iñaki Zarrakoa EITBko zuzendari orokorraren arabera, beharrezkoa zen «jauzi kualitatibo» bat ekarriko du.

I. LETURIA / DONOSTIA

Aipatu Iñaki Zarrakoa, Luis Alberto Aranberri 'Amatiño' ETBko zuzendaria eta Mikel Lejarza programazio zuzendariak eman zuten publikitate kanpaina zabal baten ondoren aditzera eman den programazioaren berri. Iraultza hitza egungo antolaketa berriaren ezaugarritzat aukeratu bada aurreko parriletako programetatik gehienak aldatuak izan direlako izan da.

«1983. urtetik ETB lanean hasi zenetik bilduz joan garen esperientziak programazio aldetik jauzi kualitatibo bat egiteko momentua hau dela erakutsi digu», adierazi zuen Zarrakoa. Hala ere aldaketa «kualitatiboak» iraganarekin apurtzea ez duela suposatzen argitu zuen EITBko zuzendari orokorrak, sorrerako helburuak oraindik «helburu» izaten jarraitzen dutela nabarmenduz eta horrez gainera Euskal Telebista posible egiten duen gizataldean bertan jarraitzen duela gogoratuz.

ETB bien audientzia goruntz doan



«Jauzi kualitatiboak ez du iraganarekin apurtu nahi».

momentuan aldaketei ekiteari arriskutsua dela eta erronka handia dela ohartarazi zuen Zarrakoa, baina erronka beharrezko gainontzeko telebistek, beldur edo zuhurtasunez, formula zaharrei eusten dien bitartean.

KATEEN BEREIZKETA MANTENDU

Programazio «iraultzaile» gora behera, desberdin aplikatuko dira aldaketa horiek Euskal Telebistako lehen eta bigarren katean, Zarrakoa zuzendariaren esanetan «kate biek helburu ezberdinak bai dituzte». Amatiñok ere ideia berbera defendatu zuen «sorrerako mandatu bikoitza» bezala definitu zuena. «ETBko lehen katearen funtzioa normalizazio linguistikoaren tresna izatea da eta bigarrenarena, berriz, integrazio eta partizipazio politiko-informatiboa bultzatzea», adierazi zuen Luis Alberto Aranberri.

Hortaz helburu desberdintasunak

eduki edo programazio bera ere berdina ze izatea ekarri dute eta hau bereziki kate bien esloganetan antzemana daiteke: ETB1 katearena «Ikusgarria» den bezala ETB2rena «La TV de aquí» izenekoa da. Esloganak eta kate bien izateko arrazoiaren artean lotura hestua dago. Lehenegoa normalizazioa helburu den heinean besten mailako kate konbentzionala behar du izan.

IKUSGARRIA ETA BERTAKOA Zeregin berezia duena izango da ordea eta beraz «konbentzionaltasunaren» bidetik ikusgarri eta atsegina izatea du helburutzat.

ETB2 kateak, ordea, espainieraz dituen lehiakideak kontutan izanik espezializazioa hartuko du irtenbide bezala EITBko zuzendari orokorrak adierazi zuenez, eta haiei aurre hartzeko abantaila hurbiltasuna, bertako izatea dira.

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Esther Martinez Ortega, 90 urte.
Maria Mercedes Ladron de Guevara Ruiz de Alegria, 89 urte.
Maria Arana Fernandez, 59 urte.
Juan Bautista Beriain Galduroz, 90 urte.

Zacarias Varga Blanco.
Julia Karrantza Fombellida.
Milagros Payo Velasco, 86 urte.
Feli Martinez de las Heras.

AREETA

Julian Carrion Garaio, 59 urte.

BARAKALDO

Felisa Cura Aparicio, 80 urte.

BASAURI

Jose Miguel Gallastegi Landa, 63 urte.

DURANGO

Francisco Larrañaga Lete, 75 urte.
Maria Adoracion Balenziaga Négogor, 103 urte.

KORTEZUBI

Bizente Mendiola Elorza, 74 urte.

PORTUGALETE

Dativa Diez Lopez, 79 urte.

USANSOLO

Andresa Urresti Amorrosta, 81 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Francisco Gorriti Rezola.
Ines Garro Azpiroz, 66 urte.
Jose Goia Zubillaga, 59 urte.

AZKOITIA

Juaniata Alberdi Azpitarte, 70 urte.

EIBAR

Ana Isabel Lazpita Laskurain, 33 urte.

HERNANI

Modesta Iribar Aizpurua, 87 urte.

LEGAZPI

Jose Antonio Zabaleta Mantxola, 67 urte.

ORIO

Jose Antonio Jaka Apaolaza, 41 urte.

TOLOSA

Andres Pascual Gracia, 58 urte.

URRETUXU

Maria Luisa Aranbarri Badiola, 61 urte.

ZARAUTZ

Santiago Zabala Seguiola, 92 urte.
Cayetano Rodriguez Castillo, 60 urte.

ARABA

GASTEIZ

Alicia Crespo Lafuente, 76 urte.
Luis Santiago Soto Fernandez, 46 urte.

Santiago Fauz Gonzalez, 76 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Jose Biskarret Ozkoidi.
Jose Maria Zaldia Anabitarte, 75 urte.

ARRONITZ

Felipe Alegria Etxeberria, 65 urte.

ATARRABIA

Manuel Erro Salbide, 80 urte.

CADREITA

Jacinto Ria Palomar, 83 urte.

SAN ADRIAN

Amador Mateo Esparza, 82 urte.

URDAZUBI

Pablo Jaurena Etxeberria, 79 urte.

LAPURDI

MIARRITZ

Marthe Ospital, 85 urte.

Jeanne Matthey, 94 urte.

SENPERE

Michel Etxeberri, 71 urte.

Ingurugiroa

Ingurugiro Heziketaren II. Ihardunaldiak eratuko ditu Eusko Jaurlaritzak Bilbon

BILBO

Datorren urrian egingo diren Ingurugiro Heziketaren II. Ihardunaldiak begira, gaur Bilbon eta datorren astean Hego Euskal Herriko beste hiru probintzietan herrialdeetako topaketak ospatuko dira. Ihardunaldiak eta lurraldeetako topaketak Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro sailak antolatu ditu.

Herrialdeko topaketa hauek probintziz probintzi eratuko dira. Horrela, lehen esan bezala, gaur Bilbon izango dira. Datorren astean, hilaren 28an, Gasteizen eta Donostian; eta 24an, Iruñean.

«Ihardunaldien erreflexio prozesuari hasiera emateko nahian, topaketa hauek herrialdeka ingurugiro heziketaren esperientziak analisi eta koordinaziorako elkartrukaketa izan nahi dute», adierazi zioten atzo EGUNKARIAri Ihardunaldien Idazkaritza Teknikoko ordezkari batek.

Herrialdeko topaketa hauen barne goizeko saioan, herrialde bakoitzeko



Ingurugiro ihardunaldiak Bilbon hasiko dira.

koordinatzaileak aurkezpena eta esperientzien balorazioa egingo du, jarraian esperientzien trukaketa izango delarik. Arratsaldean, ingurugiro heziketari buruzko ponentzia eta elkartrukaketa izango dira.

Topaketen ondoren, datorren urriaren 25ean hasiko dira Ingurugiro Heziketaren II. Ihardunaldiak.

Ihardunaldi hauek Bilboko Sarriko-ko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultatean egingo dituzte. Ihardunaldien barne John Celeia UNESCOren MAB egitasmoaren gaztelaz hizkuntzen alderako koordinatzaileak 'Ingurugiro Heziketaren gaur egungo perspektiba. UNESCOren norabideak' gaia jorratuko du.